

Euskal tratularien lorratz iluna Atlantikoan barrena

Bi mende igaro dira, baina berdin dio. Pose hutsa izan zen esklabo merkataritza borratzeko 1815ean Vienan egindako nazioarteko adierazpen solemnea. Segitzen dugu itsas hondoan atzoko eta gaurko esklaboen hilotzak zenbatzen. Eta ez ziren gutxi izan hori baino lehenago, eta geroago, barkuen sotoetan “giza merkantzia” eraman zuten euskal izeneko kapitainak, faktoreak eta tratulariak.

| URKO APAOLAZA AVILA |

“MENDEOTAKO GIZON ILUSTRATU eta bidezkoek pentsatu dugu ‘Afrikako beltzen trafikoak’ izenez ezagutzen den merkataritza, giza-terriaren eta moral unibertsalaren printzipioen aurkakoa dela”. Hitz ponpoxoak erabili izanagatik ere, esklabo trafikoaren kontra 1815eko ekainean egindako adierazpenak apenas izan zuen oihartzunik. Europa zahar-rraren mugak birdefinitu zituen Vienako Kongresuan bazegoen gauza inportanteagorik diskutitzeko. Eta bi menderen ondoren Waterlooko bataila gogoratuko dugu, milaka soldadu garbitu zituztela esanez, baina ahaztuko zaigu munduko potentzia handiek konpromisoa hartu zutela milioika lagun biziak ostu zituen komertzioa eteteko. Haiei ahaztu zitzaizkien moduan.

Adierazpena Austria, Frantzia, Britainia Handia, Prusia, Errusia eta beste hainbat lurraldetako ordezkari, zar, enperadore nahiz erregeek sinatu zuten. Letra txikidun klausulak ez dira gaurko finantzarien asmakizun ordea; testuak zioen norberak “egoki epaitzen” zuen moduan jardungo zuela. AEBek eta Espainiak Afrikaren giza espoliazioari ezikusia egitea epaitu zuten egoki, eta toki batzuetan, Kuban esaterako, inoiz baino esklabo gehiago inportatu zituzten hurrengo hamarkadetan. Kolonietako elitera iritsitako euskaldun askok majo baliatu zuten lege-ana-basa. Azukrez eta zigor-kolpez grabatutako historia da hau.

Britainiarrek esklabogintzan harrapatutako ontzien eta komandanteen zerrenda zehatzak egin zituzten urtez urte. Euskaldun mordoa da haietan: Aresti, Aurtenetxe, Igartua, Oleaga, Zurbano, Inza, Tellaetxe...

Cadizeko Beltz Konpainia: Arantzazuko amaren esklaboak

XVI. mende hasieran merkataritza portugaldarrak São Tométik Amerikara sistematikoki esklaboak garraiatzen hasi zirenetik, ia lau mendez milioika afrikarrek izan zuten patu bera –NBERen arabera 15 milioi–. BBCn irakurri ahal izan dugu Atlantikoan barrena bidaia zital horiek

egiteko lehen errege-baimena 1510ean lortu zutela. Ez askoz geroago zenbait euskaldun zeregin berean zebiltzan jadanik, Balmasedako Urrutia leinu boteretsukoak kasu. 1526an 45 beltz ontziratu zituzten urrutiatarrek Afrikan, nakar-txirlak bildu zituzten Karibeko Cubagua irlan.

Hastapen horietan, esklaboak Perun eta Mexikon zilar meatze inguruetan sortutako hirietan

tokatu ziren batez ere, zeregin anitzetarako. Baina XVIII. mendetik aurrera azukre kanabera sailak bihurtu ziren zilar eta urre, eta ordura arte periferikoak izandako tokietan (Karibe, Brasil, Ipar Amerika...) beste esklabotza eredu bat sortu zen, pertsonen salerosketa masiboari ateak ireki zizkiona. Eduardo Galeano zenak ezin hobeto deskribatu zuen Latinoamerikari egindako ebakia: “Sarraskitutako inperio indigenen zorigaitzari, gehitu behar zaio Brasil eta Antilletan lan egiteko afrikar herrixketatik indarrez atzitutako beltzen destino terriblerak”. Beltz horiek akitu arte egin behar izaten zuten lan eguzkipean. Oraindik altiplanoan entzun daiteke orduko abestien oihartzuna: *Anda y camina negro, vamos pa'l cañaveral...*



ERRESUMA BATUKO ANTZIBO NAZIONALAK

1869an Dhapne britainiar fragatak 300 esklabo inguru "askatu" zituen Zanzibarko kostaldean, esklabo-ontzietan zeudela. Esklabo trafikoaz ezagutzen diren garaiko fotografia bakanetakoak atera zituzten.

Espainiako kolonietara esklaboak eramateko pribilegio edo asientoak portugaldarren esku egon ziren denbora luzez; beraiek ziren Afrika ertzeko sekretuen jabe. Gero *South Sea Company*-k izan zuen monopolioa. Baina Espainiako Koroak ingelesekin zuen kontratua likidatzerakoan, euskal jatorridun merkataritza konpainiak jo eta su sartu ziren negozioan. Habanako Errege Konpainia eta Caracasko Gipuzkoar Konpainia txit entzute-tsa hainbat urtez behar ilun horretan aritu ziren. Donostiako Koruko Santa Maria basilika ez zen soilik kakaoarekin jaso.

Afrikako esklabo-portuen giltza portugaldarren eta holandarren poltsikoan zegoen

oraindik eta haien bitartekaritza beharrezkoa zuten euskaldunek. Hala, jauntxo azukre zaleen gosea berdindu ezinean ibili ziren. Premiazkoa zen esklaboak Afrikan azkar eta merke lortzeko bideak urratzea. 1752an Kubako oligarkek eskatu zutenean arren "beltzez hornitzeko" irla hura, Nicolas Gilisasti merkataria donostiarraren proposamena jaso zuten "zuzenean Gineako kostatik" beltzak eramateko. Ez zen posible izan. Baina urte batzuk geroago, Cadizeko Beltz Konpainia sortu zen helburu berarekin –*Compañía de Negros* deitzen zioten arrunki—. Eta haren atzean ere euskaldunen diru eta ahalegina dago, Andaluziaren eta Euskal Herriaren

ESKLABO TRAFIKOA

arteko harremanak pelikula bat baino gehiagorako ematen baitu.

Esklabo trafikoan espezializatutako konpainia bakanetakoaren berri apenas aurkituko dugu gure entziklopedietan, sustatzaile nagusi ziren arren Lorenzo Ariztegi oñatiarra, Miguel Uriarte elorriarra, Jose Goikoa garestarra eta Francisco Agirre uztarrotarra. Cadizeko euskal komunitate indartsuko merkatariok 1765ean eskuratu zuten afrikarrek trafikatzeko baimena. Hor-tik gutxira *Nuestra Señora de Aranzazu* fragata –“*La Venganza*” ezizen kezkarria zuena– hiri hartako badiatik Ginearantz abiatu zen helburu aitzindari eta bakarra zuela bidaia-koadernoan: 600 beltz ontziratzea. Azkenean 250 baino ez zituzten lortu, asturuz frantziar tratulari batzuekin topo egin zutelako. Iraun zuen urteetan Beltz Konpainia frakaso bat izan zen bere akziodunentzat, eta hilobi bat Habanara eta Puerto Ricora pasa zituen 30.000 inguru esklaborentzat.

Tromelingo esklabo ahaztuak

Afrikarren esklabo salerosketa oraindik ez zegoen kontraktasunean XVIII. mendeko pentsaera ilustratuarekin. Egungo Europan immigranteen hegazkin bidezko kanporaketa kolektiboek batzuei kontraesanik sortzen ez dien gisan. Voltairerentzat, esklabo-tratua, arraza batek bestearen gain zuen nagusitasunaren erakusle baino ez zen. Hala, Argien Mendeko Frantziar milaka bidaia egin ziren Afrikako kostalderantz, gero Haitiko kanaberetan lan egin zezaten. *Le Monde Diplomatique*-ren azkeneko zenbakian Noam Chomskyk dio Frantziak bere aberastasunaren %20 haitiarren torturaren bidez lortu zuela, “egun segitzen duena, tamalez”.

Euskal Herritik ez oso urrun, Bordelen, esklaboak harrapatzeko 480 espedizio antolatuta zituzten urte horietan. Baina ez dugu kanpora



Cadizeko Beltz Konpainia euskal jatorriko tratulariek sortu zuten. Goian, konpainiaren carimbo edo zigilua; burdin-goriz markatzen zieten esklaboei larru-azalean. Behean, Brookes barkuaren diagrama. 1789an, 450 esklabo eramateko ontziratze-plan batean oinarrituta egin zuten ilustrazioa abolizionista britainiarrek.


begiratu beharrik. Gaian aditua zen Jean Mettas historialariaren arabera, Baionako portetik ere gutxienez bedertazi itsasontzi irten ziren jomuga berarekin. Pierre Dolhonde kapitainak, esaterako, 249 esklabo eramane zituen Haitiko Saint Marc portura, non eta *L'Heureuse* (Zoriontsua) ontzian. Bada, hala ere, kasu ezagunagorik: Tromelingo “esklabo ahaztuez” ari gara.

1776an frantziar gerra-ontzi batek Madagaskarretik chunka miliatara dagoen Tromelin irla ttipian zazpi emakume eta haurtxo bat aurkitu zituen bizirik, denak beltzak. Hamabost urte lehenago, *L'Utile* itsasontziak istripua izan zuen bertan; tripulazioak patera bat inprobisatu eta ospa egin zuen, kilometro koadro ez duen harri hartan 60 esklabo abandonaturik utzita. Azken urteetan indusketarako arkeologiko harrigarriak egin ditu UNESCOk Tromelinen eta agerian utzi dute esklaboei bizirauteko izan zuten gaitasuna. *L'Utile* Baionako ontzi arrapaletan eraiki zen eta bidaia hura *Compagnie des Indes Orientales*-en Baionako komisionatu Joseph d'Laborderen enkarguz hasi zuen. Arkeologoei diharduen Bernard Harni-Cousseau genealogistak dokumentu batean aurkitu duenez, ontzia bezalaxe, tripulazioaren gehiengoa euskalduna zen.

Beltz merkatua, merkatu beltzean

Haitiko esklaboei Latinoamerikako lehenengo iraultza antiinperialista arrakastatsuari ekin zioten 1791n. Ordurako esklabotza abolitzeko iritziek gero eta indar handiagoa zuten Europako zenbait herrialdetan. 1807an Westminstergo Parlamentuak itsasontzi bidezko esklabo trafikoa debekatzeko itua bat izan zen. Esklabotzak, sistema ekonomiko moduan, oraindik indarrean segitu zuen urte luzez munduko makina bat tokitan, baina Atlantikoko esklabo salerosketa *de facto* ilegalizatu zen. 1815ean Vienako Kongresuko nazioarteko adierazpenak formalismo hutsa zirudien ingelesezko kukurrakuen aurrean. Espainiarekin ere hitzarmena zeukaten beltzen komertzioa galarazteko, baina legez kanpoko trafikoak halaxe jarraitu zuen. Orduan, *Royal Navy*-ko ontziak itsasoetako jabe egin ziren kontrabandoa pertsegitzeko aitzakiarekin.

Britainiar Gobernuak ordezkariak, esklabogintzan harrapatutako espainiar ontzien eta komandanteen zerrenda zehatzak egin zituzten urtez urte, eta bai, euskaldun mordoa dago haietan: Aresti, Aurtenetxe, Igartua, Oleaga, Zurbano, Inza, Tellaetxe... Tartean aurkitzen da, adibidez, Angel Elorriaga kapitaina. Beningo Whydah erreinuan atzeman zuten ingelesek, Ibarra bankarientzako esklabo ehizan ari zela *Cazador Santurzano* bergantinean. *Feliz Vascongada* goleta ere horretara



Esklabo errebolta Habanako Aldama jauregian

ENKARTERRIETAKO Gordexolan sortua, Domingo Aldama Aretxaga Kubako hamalagarren aberatsena zen XIX. mendean. Dirutza irabazi zuen trenbideekin eta esklaboen izerdiz kanabera sailetatik produzituta azukrearekin.

Sos horietako asko, Habanako antzinako harresien kanpoaldean sekulako jauregitzarra eraikitzeko gastatu zituen. 1841ean, jauregiko lanetan ari ziren esklabok matxinatu egin ziren. Motina zapaltzeko Aldamak bidalitako infanteria piketeak haietako sei hil eta hamar zauritu zituen.

Gertaerak alarma piztu zuen. Haitikoaz geroztik tentsio etengabean bizi ziren Kuba eta Espainiako agintariak, matxinadak han-hemenka izaten baitziren. Estatuak irla hartako gobernadoreari agindu zion argitu zezala Habanan jazotakoa. Honek esklabo eta kapatazak galdekatu zituen eta esku artera iritsi zaigun espediente zabala idatzi zuen konklusioekin.

“Esklaboak izan behar du nagusiak agintzen diona”

Agidanean, jauregiko lanak nahiko geldirik zeuden harria falta zelako, eta Alda-



Simon Bolivar hiribidean habanarren autoak apenas geratzen dira Aldama jauregiaren aurrean. Gordexolarrak eraikiarazitako edifizio dotorea harri zuriaz gain odol gorriaz ere egina da ordea.

mak esklaboei probetxu gehiago atera nahirik-edo haietako 25 inguru alokatu zituen, hiritik gertu eraikitzen ari ziren Guanabacoako trenbideko lanetan erabili zitzaten.

Maioralaren hitzetan, esklabook matxinatu egin ziren esanez “kalera joan nahi zutela soldata irabaztera”. Orduan, “kapritxo” hori ikusita, Aldama bera azaldu zen eta azaldu ei zien “ez egoskortzeko, esklaboak izan behar

duelako nagusiak agintzen diona”. Baina armekin tiro egiteko mehatxuaren aurrean –maioralaren bertsioaren arabera, beti ere–, esklaboetako batek “ipurmasailak erakutsi eta haie-tan golpetxoak joaz” erantzun zuen “horra tiro egiteko esan nahian bezala”. Gordexolarrak ez zuen gupidarik izan eta soldadu pelotoiari agindu zion tiro egin eta baionetaz kargatze-ko.

Habanako kalabozoan preso hartutako esklabook eta ospitalean zaurituta zeudenek, ordea, beste bertsio bat zuten. Lucumí herriko Nicanor izenekoak –beltzak erosterakoan bataiatu egiten zituzten eta izen kristauak jarri– itzultzaile bidez erantzun zien itaunei. Azaldu zuen konbentzitura zeudela ez zituztela burdinbideetan lan egitera eramango, “mendira” baizik, eta horretarako girgiluak ere ikusi zituztela.

Gobernadoreak ondorioztatu zuen gertaera isolatua izan zela hura: “Zorionez, beltzak kopuru txikitari matxinatzen dira eta hasieratik itzali daiteke, kasu honetan gertatu den bezala”.

joan zen Afrikako Bonny ibai aldera Thomas Olagibelen gidaritzapean, baina 1836ko urtarilaren 28an geldiarazi zuten. Zerrenda beltz hori euskal itsasgizonen atlantikoan utzitako lorratzaren parte ere bada.

Eskuarki New Orleans edo New Yorkean pleitatzan zituzten tratularien ontziak, AEBetan kotoigintzaren boomarekin errazagoa baitzen azpijokoa egitea. Behin Afrikara iritsita,

esklaboak girgiluz kateatuta barnatzen zituzten sotoetara, ahalik eta gehien kabitzeko moduan. Bidaiak irauten zuen bizpahiru hila-beteetan ez zuten apenas mugitzeko aukerarik, jatekoa eskas eta gaixotasunak eta zigorrak ugari. Heriotza tasa %12tik gorakoa izan ohi zen, zenbaiten arabera askoz gehiago ere bai.

XIX. mende erdialdean Kuba zen esklabo gehien jasotzen zuen herrialdea. Hugh Thomas historialari arras ezagunak dio 1858tik 1862ra irla horretara iritsitako 100.000 esklaboetatik gehienak Julian Zulueta aginduz eraman zituztela. Angel Katarain ekoizleak dokumentala egin du pertsonaia horretan oinarrituta, *Siete calles de La Habana* (Habanako zazpi kale) proiektuaren baitan. Bere esanetan, historiak ezabatutako “gizon eta izen bat” da Zulueta. Arabako Anuntzeta herrian jaiotako merkataria honek sekulako botere ekonomiko eta politikoa lortu zuen Kuban: azukre-ola erraldoiak zituen eta esklaboak garraiatzeko 20 ontziko *Expedición por África* konpainiaren jabe zen. Zuluetak trenbideak eraiki zituen, esklaboak txertatzen lehenengotakoa izan zen eta haiek alokatuz ere nego-




Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailletarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

© 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-guipuzcoa.com



zioa egin zuen. Esklabotzaren ikuspegi kapitalistena sinbolizatzen zuen arabarrak.

Baina Kubako gainerako esklabisten moduan, bazekien sistema hura garaiko dotrina ekonomikoen kontrakoa zela. Gainera, esklaboen errebolaren beldurra eguneroko soinua zen (ikusi koadroa). Hala, beltzen esklabotzari uko egin gabe, bestelako “formulak” esperimentatzen hasi ziren. Horretan ere euskal jatorriko merkatariak ez ziren atzera geratu.

Txinatarrak, indiarrek, euskaldunak...

Lehen aldiz Asiatik Amerikara txinatar esklaboak eraman zituen itsasontziak *Oquendo* izena zuen. 1847ko ekainaren 3an iritsi zen Habana-ko portura, Xiamengo 206 lagun zeramatzala. Txinatar horiei deitzeko “kolono” eufemismoa erabiltzen zuten arren, egiaz derrigortuta zeuden han. Ez da harritzekoa askok suizidatzeko hartutako erabakia, beste askok berriz ihesari ekin zioten. Zuluetak berak txosten batean zioen 1872an Kubara eramandako 58.000 txinatarretatik erdia baino ez zela geratzen eta horietako asko sasian. Euskal tratulariarentzat arazoa zen ez lan-baldintzak baina Kuantoongo jorنالarien “alferkeria”.

XIX. mende erditik aurrera “kolonizazio” proiektu ugari diseinatu ziren beste hainbat herrirekin, kasu batzuetan sofistikazio maila beldugarria erakutsiz gainera. Guraso bizkaitarrak zituen eta txikitik Bilbon ikasia zen Domingo Goikuria militarrek 1855ean 416 maia inportatu zituen Yucatango penintsulatik Habanara. Mexiko eta Yucatan gerran zeuden sasoi hartan, eta britainiar ordezkariek batek salatu zuen Kubako merkatariak Mexikoko Gobernuarekin tratua egina zutela: 200 soldadu bidaliko zituzten

Ezkerrean, Julian Zulueta azukre-oletako baten ezkila, egun Habana Zaharrean ikusgai. Eskuinean, txinatar esklaboak ontziratzen Macaun; lehen txinatarrak *Oquendo* itsasontzian eraman zituzten Kubara, Zulueta eraginiduz.

niako Artxibo Historiko Nazionalen aurkitu dugun dokumentu batek dioenez “bidaia hartan zorigaitza gertatu zen: 8 urteko 46 haur hil ziren elgorriak jota”. Ez du ematen ordea heriotza horiek Goikuria inpresionatu zutenik: itsasontzia berrogeialdian egon zen denboran, bizirik geratu ziren kolonoen mantenua bere gain ez hartzeko eginahalak egin zituen. Paradoxikoki, Goikuria esklabotza beltzaren abolizioaren aldekoa zen, independentista amorratua ere bazen, eta garrotea eman zioten 1870ean Habanako El Príncipe gotorlekuan. Egun, hiri hartako kale batek bere izena dauka.

Euskaldun guztiak ez ziren esklabista, eta esklabista guztiak ez ziren euskaldun. Baina kanibalismoa praktikatu du. Ezaguna da Miguel Aldamak –Domingo Aldama Gorde-xolako esklabista handiaren semea– 1844an zenbait euskaldun Kubara eramateko egindako saiakera. Garai hartan idatzitako gutun pertsonal batean pozik ageri zaigu,

XIX. mendean, beltzen esklabotzari uko egin gabe, bestelako “formulak” esperimentatzen hasi ziren, kasu batzuetan sofistikazio maila beldugarriarekin gainera. Euskal jatorriko merkatariak ez ziren atzera geratu

jadanik hamar bizkaitar iritsi zirelako ontzi batean, baina beste 85 “eskatuta” zituen “familien artean banatzeko”. Emigratio masiboaren aurrekaria zen hura. Ez baitugu ahaztu behar hurrengo hamarkadetan Amerikara joandako euskaldunen gehiengo handi batek beharra ateratzearen utzi zuela sorterrria. XIX. mende amaierako egunkariak emigrante gaixoen bidaia tamalgarriak kontatzen zituzten,

memorian oraindik oso bizirik zegoen esklabo trafikoarekin konparatuz; Eliza ere asaldatuta zegoen exodoarekin eta “mafiak” salatzen zituen. Baina Pasaian edo Baionan baporeak lepo betetzen ziren berdin-berdin, pobrezia-egatik ihes egiteko nahiari ezin baitzaio aterik itxi, ezta itsasoari mugak jarri ere, izan Atlantikoa, izan Mediterranea. ■